

ZARRA JAUREGIA



Zarra Jauregia, Bustintza etxea ere deitua, bi zatiz osatuta dago: Bata XVI. mendekoa da, eraikinaren hiru gorputzetatik ezkerren dagoena, eta gaur egun hondakin egoeran dagoena; bestea eskuinetan dituen bi gorputzek osatzen dute: XVIII. mendekoak, zutik daude, oso eraberrituta bada ere, eskuinena dagoen gorputza batez ere.

KOKAPENA:

Garaian herriko puntu estrategikoa zen batean eraikiko zuten: herriko sarreran Gipuzkoatik, Errege Bidearen ondoan. Etxearen konposizioak argi uzten du bere nabarmentzeko borondatea. Lehen aipatutako hiru gorputzetatik, erdikoa izango da altuena, inklinazio handiko teilatu batekin, beste bien artean gailenduz, eta gorputz nagusi bezala agertuz, aurreko aldeko bi armarriek baieztatzen digutena.

XVI. mendeko zatia:

ERAIKUNTZAREN KANPOALDEKO ANALISIA:

Zati hau, lehen esan bezala gorputz nagusiaren ezkerretara dagoena, dorre itxurakoa izango zen hasiera batean. Ala esaten da 1658ko dokumentuetan, non aipatzen den lehen aldiz, eta non kontatzen diguten Torreta-ren antza izango zuela bai formaz eta bai itxuraz. Horregatik, XVIII. mendeko zatia eraiki zenean itxuraldatuko zutela, estilo berriari moldatuz uste dugu; hala ere XVI. mendeko erdi puntuko arkua kontserbatu egingo zuten.

Bi pisu ditu: Bigarren pisua lehen pisuaren gainean dagoen erlaitz ganbil baten gainean ezarrita egongo zen. Etxearen azpiko aldea harlanduz eginda zegoen eta goikoa berriz harlangaitzez; leihoek dintelak izango zituzten. Guzti hauek XVI.mendeko etheen ezaugarriak dira, elementu errenazentistak. Arku gainean letra gotikoekin idatzita inskripzio bat egongo zen, XVI. mendeko beste elementu bat gehituz horrela eraikuntzari. Teilatua XVIII. mendeko zatiarena baino baxuagoa izango zen, gaur egun oraindik ikus daitekeen bezala, eta bi isurialde izango zituen. Eraikuntza hau ez zen oso zabala izango, 3-5 metro inguruko zabalera bakarrik izanez.

EGUNGO EGOERA:

Bere kontserbazio egoera oso kaxkarra da gaur egun, 1999an, inguruan egiten ari ziren obra batzuek eraginda, hondoratu egin baitzen eraikuntzaren zati handi bat. Lehenengo pisuko harlanduzko zati bat ikus daiteke oraindik, eta eraikuntzak izango zuen garaiera ondorioztatu XVIII. mendeko zatian geratu diren aztarnetatik.

XVIII. mendeko zatia:

ERAIKITZEKO ARRAZOIA:

XVIII. mendeak mentalitate aldaketa bat dakar berarekin, eta joera berria familia beren etxea edo jauregiarekin identifikatzekoa izango da: armarriek berriro indarra hartuko zuten, familiaren ohorearen erakusgai moduan, eta etxea bera ere, botere ekonomiko, sozial eta politikoa islatzeko prestatua egongo zen.

Zarra etxearen handitzea arrazoi honekin egingo zen beraz, eraikuntzaren erdiko eta eskuineko gorputzak eginez XVIII. mendean (eskuineko gorputza berez nolakoa izango zen jakiteko modurik ez badugu ere, izan ere, gaur egun duguna berreraikuntza bat da, erori egin zen etxea irudikatzen duena, hura ere ez zelarik originala bezalakoa izango, izan ere, aldameneko etxeak leihoak baititu alde horretara emanez, etxe hau XIX. mendekoa izango delarik).

ERAIKITZAILEAK:

Harrobiko Maisu batzuk kontratatuko zirela egiteko uste da, ziur aski gipuzkoarrak, izan ere, beraien zeinu edo marka, kasu honetan ate nagusiko ateburuan aurkitu dena, eta loretan dagoen adar baten itxura duena, Loiolako Basilikatik gertu ere aurkitu da.

ERAIKUNTZAREN KANPOKO ANALISIA:

Jauregi barroko baten aurrean gaude, nahiz eta klasizismoko elementu asko izango dituen oraindik ere. Azkeneko estilo honekin lotuko dugu bere apaindura falta, zenbait

luxuzko elementu barne hartzen baditu ere, ate nagusiko dekorazioa edo balkoietakoa esaterako.

Klasizismoarekin duen loturagatik, eta Orbe eta Larreategitarren armarriak bakoitza bere aldetik agertzen direlako, 1700 urte ingurukoa dela jauregia uste dugu, hau da, XVIII.mende hasierakoa. Izan ere, 1759ean Valdespina Jauregia amaitzen denean, familia berarena zena, bi familien armarriak bateratuta agertuko dira.

Erdiko eraikuntzaren beheko aldea harlanduz eraikita egongo da, eta harlangaitzez berriz lehenengo pisua, leihoen ingurua izan ezik, hau kuxin erako harriz osatuta egongo baita. Beharbada, harlangaitzezko zatia igeltsuz estalita egongo zen hasieratik, garaian ohikoa zen moduan, edo beranduagokoa izatea ere baliteke, baina oraindik igeltsuaren arrastoak ikus ditzakegu.

XVII eta XVIII. mendeetan ia inoiz ez zen etxe osoa harlanduz egingo, izan ere, oso garestia zen harlandua, eta horregatik, beheko pisua harlanduz, eta lehenengo pisua harlangaitzez egiteko joera izango zuten leku askotan, kosteak merkatze aldera. Etxe gutxi eraikiko ziren garai honetan, ia denak lehendik eraikitakoen handitze edo eraberritzeak izanez.

Etxe osoko dekorazioa barrokoa izango da, loreak erabiliz, eta naturako gaiak, armarrietan ikusiko dugun moduan. Balkoiek ere apaingarri eredu bera jarraituko zuten. Azken hauek garrantzi handia hartuko zuten garaian, luxu eta botere sinbolo bilakatuz. Omenaldi-balkoi modukoak izango ziren etxe nobleetakoak, etxe txiroetakoengandik oso ezberdinak, azken hauetan, etxearentzat espazioa irabazte aldera eraikiko baitziren. Harrizko oinarridunak izango ziren aberatsen balkoiak, azpian euskarririk gabeak, eta burdin barradunak gainerako estrukturan, aztertzen ari garen eraikuntzan ikus dezakegun moduan.

Atzealdean baratza bat izango zuten, garaiko etxe askotan egon ohi zen moduan, bere funtzioa autohornikuntzakoa bakarrik izango zelarik. Herri inguruan lur ugari izango zituzten etxearen jabeek, bertako produktuak merkaturatuko zituztelarik.

ERAIKUNTZAREN KANPOALDEKO ANALISIA:

Barnealdeari buruz suposizioak besterik ezin ditzakegu egin, izan ere, oso eraberritua dago, eta gaur egun etxebizitza pribatuak dira. Arazo honen aurrean, garai bereko Bizkaiko beste etxe batzuekin alderatzea erabaki da, eta honako ondorio hauek azaleratu ditugu: Sarrerako ateak atari batera emango zuen, erdi tamainakoa, karratua eta harriz estalia, non lehenengo pisura igotzeko eskailera bat hasiko zen. Eskailera hau atalka egongo zen banatuta, pisu bakoitzaren aurrean atari txiki bat osatuz. Logelak lehenengo pisan egongo ziren.

Egongela zabala izango zen, ziur aski balkoi nagusiaren parean. Inguruan izango zituen jabeen eta familiaren logelak. Zerbitzuaren logelak bigarren pisan, teilatu azpikoan, egongo ziren.

JABEAK:

Jakina da Orbetarrak Ermuan bizitzen jarriko zirela XVII. mendean Bergaratik etorrita, eta beraz, XVI. mendeko erakin zatia, jatorriz, ezin zen beraiena izan. Suposatzekoa da Larreategitarrena izango zela eraikin hau, eta bi familiak ezkontza bidez batutakoan ondare bateratuaren zati izatera pasako zela (María Ana García de Larreategi y Arzuaran eta Antonio Martínez de Orbe y Roma-Galarza ezkondu ziren; hiru seme-alaba izan zituzten, bata Orbeko Kardinala izango zena gero, eta Valdespina Jauregiaren eraikuntza aginduko zuena).

Larreategitarrei dagokionez, nahiko sendi aberatsa izango zirela suposatzen dugu, herrian zehar hainbat etxe baitzituzten alokairuan jarriak. Hau ala izanik ere, ziurrekin merkataria edo enpresariak izango ziren, Ermuko beste zenbait familia garrantzitsuren moduan, Plentzian arma negozioak baitzituzten, dokumentuen arabera. XVII. mendeko krisi ekonomikoan zehar, hau izango zen kalterik txikiena jasoko zuen industrietako bat, Erregearen arma eskaerei, eta Indiekin zegoen merkataritzaren beharrei erantzuten baitzien batez ere industria honek, eta eskaera hauek ez baitziren jaitsi XVII. mendean zehar.

EGUNGO EGOERA:

Gaur egun erdiko gorputza guztiz eraberrituta dago, eta hainbat zatitan banatuta, etxebizitza pribatuak osatuz. Bere kontserbazio egoera ona da, bere jabeen aldetik kontserbazio lanak etengabeak izan baitira, honek, eraberritze plan orokor bat beharrezko ez izatea eragin duelarik, beste zenbait kasutan gertatu denaren aurka, Lobiano Jauregian esaterako.

Eskuineko gorputzari dagokionez, gaur egun Emakumearen Etxearen egoitza da, eta ez du inongo zer ikusirik lehen zenarekiko, Guardia Zibilaren kuartela bertan ezartzeko moldatu zutenetik.

BIBLIOGRAFIA:

- Aranberri, F. (2001) *"Ermua- Eitzaga Leku-Izenak. Geure izanaren barrena"*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Astiazarain, M.I. (2000) *"Puntos de encuentro y comportamientos tipológicos en la arquitectura barroca vasca"* Revista Ondare, Num. 19, Pags 25-45.
- Bran, B. (1988) *"Arquitectura en Ermua"* Revista Villa de Ermua, Num. 9, Pags 14-15.
- Pinedo, J.A (1996) *"Ermua, Mallabia eta Zaldibar. Bizkaiko Herrien Monografiak"*. Bilbao: Diputación Foral de Bizkaia.

KOLABORATZAILEAK:

- Fernando Aranberri.

EGILEA:

Maddalen Zabaleta.